

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

#### Diputatuen Kontseiluaren 32/2015 Foru Dekretua, ekainaren 2koa, arautzen duena Arabako Lurralde Historikoko osasun eta gizarte arloko egoitza-unitaterako sarbidea

1998ko azaroaren 16an Osasun Sailak, Arabako Foru Aldundiak (orduko Gizarte Ongizate-rako Sailaren bitartez) eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak esparru akordioa sinatu zuten Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta osasun arloetan zeuden beharrianak estaltzeko asmoz lankidetzan jarduteko. Hain zuzen, akordio horren hirugarren klausulan jaso zen Esparru Akordioa hitzarmen berezien bidez edo bestelako akordio eta protokoloen bidez zehaztuko zela; eta horietan bete beharreko helburuak, horretarako baliabideak eta horiek aplikatzeko ardura duten organoak ezarriko ziren.

Halaber, 2003ko urtarrilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek, eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) lankidetzak hitzarmena sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte eta osasun arloetan laguntza emateko.

Azkenik, 2009ko otsailaren 27an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Arabako Foru Aldundiak eta Osakidetzak Arabako Lurralde Historikoko osasun eta gizarte arloko egoitza-unitateetan gizarte eta osasun zerbitzuak eskaintzeko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten, osasun eta gizarte arloko beharrianak dituzten pertsonen erantzuteko. Horrela, Aldundiak kudeatutako edo itundutako unitate horietan osasun zerbitzua eskaintzetik eratorritako gastua konpentsatuko litzaioke Gizarte Zerbitzuen Sailari.

Dekretu hau egiteko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Arabako III. Foru Plana (2010eko urriaren 5eko diputatuen kontseiluaren 618/2010 erabakia) egiteko kontuan hartu ziren gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako irizpideak eta Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edukia (EHAA 42. zenbakia, 2005eko martxoaren 2koa) hartu dira kontuan.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATU DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea

Arabako Lurralde Historikoko osasun eta gizarte arloko egoitza-unitaterako (hemendik aurrera OGEU) sarbidea arautzea da Foru Dekretu honen xedea, eta zerbitzua eskaintzeko baldintzak ere arautzea ere bai.

#### 2. artikulua. OGEUren definizioa

OGEU aldi baterako laguntza emateko baliabidea da, zaintza-beharrizan handia duten pertsonen behar duten arreta eskaintzeko diseinatuta dagoena.

Ospitaleetan dauden baina alta klinikoa jasotzeko irizpideak bete arren osasun eta gizarte arloko arrazoiak direla medio alta hori hartu ezin duten pertsonak aldi baterako hartzeko balio

ahalko du; egoitza horietan sartuko dira, bestalde, gizarte zerbitzuen sareko zentroetan eta etxebizitzetan tratatzeko zailak diren pertsonak, osasun eta gizarte arloko laguntza jasotzeko beharizan handia badute, baina beharizan hori ospitaleratzeko modukoa ez bada.

Helburu modura batez bestean laurogeita hamar (90) eguneko egonaldia ezarri bada ere, OGEUn hamabi (12) hilabetez jarraian egon ahal izango dira gehienez. Erabiltzaileek unitatea utzi beharko dute osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak emandako irizpenak hala badio. Kasu horretan haien erabiltzaileak beren ohiko etxebizitzara eramango dira, edo baliabiderik egokienera, osasun zein gizarte arlokoa, haien beharizanei ondo erantzuteko.

## II. KAPITULUA

### ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIA

#### 3. artikulua. Baliabide materialak

1. Hirugarren adinerako egoitza arloko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak ezarritako baldintza arkitektonikoak betetzeaz gain (EHAA 66. zenbakia, 1998ko apirilaren 7koa), OGEUk ondorengoak izango ditu:

- a) Garabiak eta gurpildun aulkiak erabiltzeko moduko tamaina duten gelak.
- b) Gutxienez, gelen ehuneko 25 pertsona bakarrarentzat izango dira eta bi gelak komun bera partekatu ahalko dute.
- c) Gela guztiek arnasmakailua izango dute oheburuan.
- d) Ohe guztiak artikulatuak izango dira eta jasogailua, babeserako barrak eta koltxo biskoe-lastikoa izango dituzte.
- e) Unitateak lekualdatzeko garabi bat izango du gutxienez, 2 arnes motarekin (bata zaku baten itxurakoa, ohetik ateratzeko, eta bestea pixoihala aldatzeko), eta zutik jartzeko garabi bat.
- f) Erabiltzaileak bainatzeko behar diren tresnak eduki beharko dituzte, erabiltzaileen mende-kotasun egoeraren araberrakoak: bainuontzi geriatrikoak, bainurako aulkiak, eta abar.
- g) Pulsioximetro bat, elektrokardiografo bat eta desfibriladorea, erabiltzailearen sendagaiak eta larrialdietarako tresnak dituen orga izan beharko ditu gutxienez, solairu edo modulu bakoitzean (plazak planta edo modulu desberdinetan badaude).
- h) Behar bezala prestatuta dagoen eta baliabide informatikoak dituen mediku bulego bat.
- i) Osasungintza eta erizaintza bulego bat, eskuak ur hotzarekin eta beroarekin garbitzeko konketa, negatoskopia, baliabide informatikoak etab. dituen.
- j) Gainerako profesionalentzako balio anitzeko bulegoa, artxiboa, baliabide informatikoak, lanerako mahaia eta siamdar besaulkiak dituen.
- k) Egoteko, jateko eta jarduerak egiteko eremu bat, gutxienez erabiltzaile bakoitzeko 4,50 m<sup>2</sup>ko azalera duena. Eremu hori higiene zerbitzu komun batetik hurbil eta ondo egokituta eta ekipatuta egongo da.

2. Arestian azaldutakoaz gain, ondorengoetarako beharrezkoak diren materialak eta baliabideak izango ditu:

- a) Sendagaiak dosi bakarrean eta ahoz zein larruzalaren azpitik eta benabarnetik emateko.
- b) Elikatzen laguntzeko teknikak: zunda naso-enterikoak, ostomia-kateterrak eta infusio sistemak eta bonbak.
- c) Erizaintzako teknikak: sendaketetarako materialak, etab.
- d) Berrezteko teknikak: ondo prestatutako fisioterapia gela bat izango dute eta horrez gain, baliabide informatikoak izan beharko ditu.

3. OGEUK berak jarriko ditu sendagasak, farmaziako sendagaiak eta erizaintzako materialak. Osasun Sailari kargatuko zaizkio farmaziako sendagaiak (indarrean dagoen legediaren arabera, kasu bakoitzean erabiltzaileari dagozkion ekarpenekin) eta osasun arloko materiala (Araba Eskualdetik edo ospitaletik, etxex etxeko ospitaleratzearen bitartez). Sendagasak zentroari berari kargatuko zaizkio.

#### **4. artikulua. Giza baliabideak**

1. Hauek egingo dute lan OGEUn:

a) Espezializatuta dauden eta zuzeneko laguntza ematen duten langileak: medikua, erizaina, fisioterapeuta, lan-terapeuta eta gizarte-langilea.

b) Espezializatuta ez dauden eta zuzeneko laguntza ematen duten langileak edo zaintzaileak: erizain laguntzaileak.

2. Zerbitzu medikua eta erizaintzako zerbitzua izango dituzte eguneko hogeita lau (24) orduz. Horiez gain, fisioterapia eta lan-terapia zerbitzua eta gizarte arloko arreta eskaintzeko zerbitzua izango dituzte.

3. Legeak ezartzen duen profesionaltasunaren irizpidea betez, beharrezkoa den titulazio akademiko ofiziala izan beharko dute langile guztiek.

#### **5. artikulua. OGEUren zerbitzuak**

1. Laguntza emateko zerbitzuak

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuak baimentzea, erregistratzea, homologatzea eta ikuskatzea arautzen duen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan (EHAA 63. zenbakia, 1998ko apirilaren 2koa), hirugarren adineko pertsonentzako egoitza arloko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 10/2008 Legean eta aplikatu daitezkeen eta indarrean dauden gainerako xedapenetan bildutako zerbitzuak eskainiko dira.

2. Bestelako zerbitzuak

Gutxienez ostatua, zaintza pertsonala, kontrola eta babesa eskainiko ditu, eta baita arreta medikua, berretzeko laguntza eta gizarte laguntza ere.

### III. KAPITULUA

#### ERABILTZAILEAK

#### **6. artikulua. Erabiltzaileen profila**

1. Profil hau duten erabiltzaileentzat da OGEU:

a) Beraien bizitzaren amaieran laguntza behar duten pertsonak: ospitalean altan emanda dauden eta bizi-itxaropen txikia duten pertsonak dira, zaintza aringarria ematen duten unitateetan sartzea behar ez badute ere, beraien etxebizitzara bueltatu ezin direnak, egoitza batera eramatea desegokitzat jotzen delarik.

b) Ospitalean egon ostean susperraldian dauden pertsonak, ezintasun fisiko edota psikiko larria dutenak; etengabeko laguntza behar dute eta, maiz, osasun zaintza ere bai.

c) Jokabide-arazoak dituzten pertsonak: demenzia prozesuek eragindako pertsonak dira, asaldatuta daudenak eta/edo jokabide-arazoak dituztenak eta beraz, egoitza-zentro bat larriki distorsionatu dezaketenak; era berean, euren etxebizitzan egon ezin diren arren, zentro psikiatrikoetako laguntza behar ez duten pertsonak ere hartu ahalko ditu.

d) Gaixotasun infekzioso eta kutsagarriak dituzten pertsonak: gaixotasun infekzioso baten ondorioz edo mikroorganismo multierresistenteek kolonizatuta daudelako egoitza batean eman

ezin diren kontrol edo isolamendurako neurri bereziak behar dituzten pertsonak, ospitaleetako unitate berezietan sartu behar ez direnean.

e) Ospitalean alta jaso duten eta susperraldirik behar ez duten pertsonak, funtsean gizarte arazoak direla medio etxera itzuli ezin badira.

f) Gizarte eta osasun arloetako beharrian handiak dituzten pertsona batzuk, ospitalean sartu behar ez badira.

2. Osasun eta gizarte arloko egoitza-unitate honen izaera mantentzeko, aurreko e) letran zehaztutako erabiltzaileen profila duten pertsonak plazen ehuneko 25 bakarrik okupatu ahalko dute. Gizarte Zerbitzuen Sailari dagokio, bere eskumenenekoak diren kasuetan, erabiltzailea gizarte-baliabide egokian birkokatzea. Pertsona batek behar duen laguntza Gizarte Zerbitzuen Sailaren eskumenetatik kanpo badago, laguntza emateko beste sistema batzuetara bideratuko da pertsona hori.

### **7. artikulua. Baldintzak**

OGEUren erabiltzaileak izan ahalko dira aurreko artikuluan zehaztutako profilen bat duten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

a) Eskaera aurkezten den momentuan hemezortzi urte (18) izatea.

b) Eskaera aurkezten den momentuan Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

c) Euskal Osasun Sistema Publikoaren onuraduna izatea, eta ez bada, aseguru pribatua izatea, edo interesdunari OGEUn laguntza eman dakiokela dioen eta unitate horretan jasotako osasun laguntzaren kostua ordaintzeko konpromisoa hartzen duen beste erakunde baten asegurua izatea.

d) Osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak emandako aldeko txostena izatea.

## **IV. KAPITULUA**

### **UNITATEAN SARTZEKO ARAUDIA**

#### **8. artikulua. Aplikatu daitekeen araudia**

Foru dekretu honetan xedatutakoak arautuko du OGEUra sartzeko administrazio-prozedura eta horrez gain ondorengo araudia ere aplikatuko da: mendekotasun egoera, ezintasunaren kalifikazioa, garapen-nahasmenduak edo horiek izateko arriskua aitortzeko prozedura eta baldintza horietan Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta diru-laguntzak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko diputatuen kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua (ALHAOren 98. zenbakia, 2014ko irailaren 1ekoa; ALHAOren 101. zenbakia, 2014ko irailaren 8koan zuzendu ziren akatsak), hori aldatzen duen urriaren 7ko diputatuen kontseiluaren 50/2014 Foru Dekretua (ALHAOren 102. zenbakia, 2014ko urriaren 10ekoa) eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea (aurrerantzean HAAJ-APE).

#### **9. artikulua. Erabiltzaileen jatorria**

Hauetatik etorri ahalko dira OGEUren erabiltzaileak:

a) Ospitaleak: dagokion ospitaleak hala proposatu ostean, interesdunak unitatera sartzeko balorazio-eskaera aurkeztu beharko du.

b) Egoitzak: dagokion egoitza-zentroak hala proposatu ostean, interesdunak unitatera sartzeko balorazio-eskaera aurkeztu beharko du.

c) Etxebizitzak: Lehen Mailako Laguntzarako Unitateek eta Gizarte Zerbitzuek hala proposatu ostean, interesdunak unitatera sartzeko balorazio-eskaera aurkeztu beharko du.

**10. artikulua. Prozedura hastea**

1. Aurreko artikuluan adierazitako profesionalek, beren irizpide teknikoari jarraiki, prozedura hasiko dute eta beraiek bete beharko dute interesduna unitatera sartzeko balorazio-eskaera, betiere interesdunak 6. zenbakian deskribatutako profila eta Foru Dekretu honen 7. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

2. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren sareko eta/edo gizarte zerbitzuen foru edo udal sareko profesionalek I. eranskinean gehitutako ereduari jarraiki bete beharko dituzte OGEUra sartzeko balorazio-eskaerak, medikuaren balorazioarekin eta erizaintza eta gizarte arloko balorazioarekin batera. Dokumentazio mediku gehigarria aurkeztu ahalko da.

Eskaera horiek, hurrengo artikuluan eskatzen den dokumentazioarekin batera, GOFeren Adineko Pertsonen Atalera bidaliko dira (Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakia, 5. solairua, Gasteiz, Araba).

3. OGEUn plaza bat nahi duen pertsonari, horren legezko ordezkariari edo egitezko zaintzaileari plaza horren ezaugarrien, egonaldiaren iraupenaren, ordaindu beharreko kostuaren eta intereseko beste gauza batzuen berri emango zaio. Baimen informatuan arestian aipatutako aspektu guztiak bilduko dira, II. eranskineko eredu bezala, eta interesdunak edo bere legezko ordezkariak edo bere egitezko zaintzaileak sinatu beharko du. Pertsona ospitaletik datorrenean Osasun Sistemak beteko du baimen hori, eta pertsona bere etxetik edo egoitza batetik datorrenean Gizarte Zerbitzuek.

**11. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Unitatera sartzeko balorazio-eskaerarekin eta baimen informatuarekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Nortasuna egiaztatzeke agiriak:

– Unitatera sartzeko balorazioa eskatu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) kopia, eta horietako bat eduki ezean, indarrean dagoen legediari jarraiki nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizialen baten kopia.

– Behar denean, legezko ordezkari modura diharduen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta hura izendatzen duen ebazpen judiziala.

– Behar denean, egitatezko zaintza daukan pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta zaintza horretan jarduten duelako zinpeko adierazpena (eredu ofiziala 9. eranskinean).

– Eskaera ordezkariaren bitartez aurkezten bada, dokumentazioarekin batera ordezkariaren datuen berri emateko inprimakia (36/2014 Foru Dekretuaren 8. eranskinean dagoena) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Eskaera ez bada aurkezten ordezkariaren bidez, eskatzaileak erreferentziatzeko pertsona bat izendatu ahal izango du jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko, ez beste ezertarako. Horretarako 36/2014 Foru Dekretuaren 8. eranskineko inprimakia bete behar da.

b) Euskal Osasun Sistema Publikoarekin aseguratuta dagoela erakusten duen dokumentuaren kopia.

c) Aseguru pribatuen edo beste erakunde batzuen aseguruaren kasuan, interesduna OGEUn hartzeko baimen sinatua eta haiek Osakidetzari osasun modulua ordaintzeko hartutako konpromisoa.

d) Eskaera aurkezten den momentuan Arabako Lurralde Historikoan errolatuta dagoela egiaztatzen duen udal ziurtagiria. OGEUra sartzeko balorazioa eskatzen duen pertsona Arabako Lurralde Historikoaren barruan kokatutako udalerriren batean bizi bada (Gasteiz, Audio eta

Amurrion bizi denean izan ezik, kasu horietan GOFE zuzenean udal erroldetara sartuko delako) aurkeztu beharko da ziurtagiri hori.

Erroldatze-ziurtagiri hori ez da aurkeztu beharko Arabako Lurralde Historikoko espetxeetan dauden pertsonen kasuan, aurrez lurralde horretan erroldatuta egon ez badira behintzat.

c) 36/2014 Foru Dekretuaren 13. eranskina, behar bezala beteta.

## **12. artikulua. Datu pertsonalak**

Aurreko artikuluan aipatzen diren eskaerarekin eta agiriekin batera GOFerentzako baimena aurkeztu behar da, hain zuen ere espedientea izapidetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena, behar bezala sinatuta (ere du ofiziala 36/2014 Dekretuaren 12. eranskinean dago). Baimen horren bidez GOFek bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, GOFek eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak emateko datu horiek 36/2014 Foru Dekretuko 6. artikuluan ezarri den bezala

## **13. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea**

1. Eskaera jaso ostean, GOFE espedientea izapidetze hasiko da eta eskaera behar bezala beteta dagoen egiaztatuko du.

2. Eskaera osatu gabe aurkeztu bada edo 11. artikuluan aipatutako dokumentuetako bat falta bada, interesdunari idatzizko jakinarazpen baten bitartez eskatuko zaio hutsune horiek 10 laneguneko epean zuzentzeko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan hutsuneak zuzendu ez badira, eskaera ezetsiko da eta artxibatu egingo da beste izapidetik egin gabe, GOFek horretarako ebazpena eman ondoren, prozedura berri bat ere hasi ahalko delarik.

## **14. artikulua. Ebazpena**

1. Osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak irizpena eman ostean, Adinako Pertsonen Ataleko Zuzendariordeak Teknikoak egoki den ebazpen proposamena bidaliko dio GOFeren Zuzendaritza-gerentziari.

2. Aurreko atalean aipatutako ebazpen proposamena ikusita, GOFeren Zuzendaritza-gerentziak prozeduraren inguruko ebazpena emango du eta gehienez hilabeteko epean jakinaraziko da, eskaera GOFen jaso zenetik kontatzen hasita. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak interesdunari badagozkio.

Aurrekoa gorabehera, interesduna ebazpena ematen denetik aurrera sartu ahalko da OGEUn, ebazpen hori ordurako formalki jakinarazi ez bazaio ere.

Zuzendaritza-gerentziaren ebazpenean arrazoiak agertu behar dira, eta ondokoak argitu beharko ditu:

a) OGEUren erabiltzailea izateko eskubidea duen edo ez aitortzea.

b) Ebazpena aldekoa bada, OGEUn sartzearren arrazoiak adierazi beharko da, Foru Dekretu honetako 6. artikuluan ezarritako profilen arabera. OGEUren izena eta helbidea, bertara sartzeko data eta Foru Dekretu honetako 22.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenaren epea amaitzen denetik egonaldia amaitzen denera arte egun bakoitzeko ordaindu beharreko prezio publikoa ere adierazi beharko dira.

Ebazpena aldekoa denean eta OGEUn plaza hutsik ez egoteagatik berehala sartu ezin denean eta beraz, Foru Dekretu honetako 18. artikuluan araututako Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendan sartu behar denean, beranduagoko ebazpen baten bidez ezarriko da unitatean sartzeko data.

c) Ebazpenak unitatean sartzeari ezesten badu, horren arrazoiak azaldu beharko dira.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea igarotzen bada eta ebazpen zehatzik eman ez bada, OGEUn sartzeko balorazio-eskaera ezetsi dela ulertuko da, administrazioaren isiltasunez.

#### **15. artikulua. Eskaera ezesteko arrazoiak**

OGEUra sartzeko balorazio-eskaera ezetsi izanaren arrazoiak ondorengoak lirateke:

a) Foru dekretu honetako 7. artikuluan unitatera sartzeko aurreikusitako baldintzetako bat edo 6. artikuluan ageri diren osasun eta gizarte arloko profilaren inguruko baldintzetako bat ez betetzea.

b) Foru dekretu honetako 10.2 artikuluan eskatzen den baimena ez izatea.

c) Osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak aurkako irizpena ematea.

#### **16. artikulua. Eskaeran atzera egitea eta eman ondoren uko egitea**

1. Ebazpena eman baino lehen, prozeduraren edozein fasetan interesdunak edo beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak eskaeran atzera egin dezake berariaz.

Interesduna zerbitzua ematea onesten duen ebazpena ematen den data baino lehenago hiltzen bada edota aldeko ebazpen hori eman ondoren eta unitatean sartu baino lehenago hiltzen bada, prozedura amaitutzat emango da, uko egin izan balio bezala.

2. Era berean, interesdunak edo haren legezko ordezkariak edo egitezko zaintzaileak zerbitzua emateko ebazpenean aitortu zaizkion eskubideei uko egin ahalko die.

3. Eskaeran atzera egiteko edo eman ondoren uko egiteko, idatzi bat bidali beharko zaio GOFeri.

4. Atzera egitea edo ukapena formalizatu ondoren, eskaera artxibatu egingo da eta prozedura amaituko, GOFeren Zuzendaritza-gerentziak ebazpena eman ondoren.

#### **17. artikulua. Presazko prozedura**

1. Salbuespen gisa, osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordea bildu arte itxaron ezin denean eta interesdunari laguntza emateko presa dagoenean, GOFeren Zuzendaritza-gerentziak emandako ebazpenaren bidez sartu ahalko da GOFEn.

Horretarako, Batzorde horretan Gizarte Zerbitzuen Sailaren izenean hitz egiten duten pertsonetako batek eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren / Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritzaren izenean hitz egiten duen pertsona batek kasua baloratuko dute eta hala irizten bada, GOFEn sartzearen aldeko irizpena emango dute. Ostean Adineko Pertsonen Ataleko Zuzendariordetza Teknikoak ebazpen-proposamena bidaliko dio GOFeren Zuzendaritza-gerentziari. Ondoren, Batzordearen bilkurak, batzen den egunean, arestian aipatutako bi bozeramaileek emandako aldeko irizpena berretsiko du. Erabakiarekin bat ez badator, kasu horretan egokiagoak liratekeen bestelako neurriak proposatuko ditu.

2. Gehienez hamabost eguneko epea egongo da presazko espedienteak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteko, GOFEn behar bezala betetako eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita.

### V. KAPITULUA

#### PLAZEN KUDEAKETA

#### **18. artikulua. Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrenda**

1. Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendaren bitartez, GOFEn sartzeko eskubidea aitortzen dien Zuzendaritza-gerentziaren ebazpena duten baina plaza hutsik ez egoteagatik unitatean sartu ezin izan diren pertsonen artean plaza bat esleitzeko lehentasun-ordena ezartzen da.

2. Lehentasun-irizpide hauen arabera ordenatuko da Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrenda:

a) Osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak ezarritako osasunaren, gizartearen eta funtzionalitatearen arloko irizpide teknikoak, gehienez 50 puntu eman ditzaketelarik.

b) Aurreko letran adierazitakoa aplikatuz lor daitekeen puntuazio berdina lortzeko, kontuan hartuko da osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak emandako irizpenaren data.

c) Aurreko letretan adierazitakoa aplikatu ondoren, kontuan hartuko da eskaera GOFEn Adineko Pertsonen Atalean sartu zen data.

3. Zuzendaritza-gerentziak aldeko ebazpena ematen duen arren, GOFEn plaza hutsik ez egoteagatik interesduna berehala bertan sartu ezin bada eta beraz Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendan sartzen bada, plaza esleitu aurretik osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak aldeko irizpena eman zitzaionean zuen egoera aldatu den edo ez baloratu ahalko du.

#### **19. artikulua. Unitatean sartzea**

1. Plaza bat esleitzen zaionean, interesduna OGEUn sartu beharko da Foru Dekretu honetako 14.2 artikuluan adierazi bezala GOFEn Zuzendaritza-gerentziak emandako ebazpenean adierazitako datan.

2. Foru Administrazioari egotz dakizkikeen kausak direla-eta edo baldintza mediko bat dela-eta, adierazitako datan sartzen ez bada, pertsona horrek OGEUn sartzeko eskubideari uko egin diola ulertuko da.

3. Baldintza berezietan arrazoi medikuren baten ondorioz interesduna ezarritako datan baliabidean sartu ezin bada, hori arrazoitzen duen mediku-txostena aurkeztu beharko da. Gehienez 7 eguneko epean sartu ezin bada, beste pertsona bati esleitu zaio plaza eta lehenengo pertsona horri sartzeko data berria esleitu beharko zaio, ebazpen baten bitartez.

4. OGEUn sartzearekin batera horren funtzionamendurako arauak onartu beharko dira eta kasua bada, ordaintzea dagokion prezio publikoa onartu beharko da, Foru Dekretu honetako 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Horretarako, OGEUn sartu aurretik, sartzeko balorazio-eskaera izapidetu duen pertsonak unitatearen barruko funtzionamendurako indarrean dauden arauen berri emango dio onuradunari edo hura ordezkatzeko duenari. Era berean, ondorengoei buruzko informazioa emango dio:

a) OGEU arautzen duen foru araudia.

b) Unitatea kokatuta dagoen zentroaren barne araubideari buruzko araudia.

Modu bertsuan, onuraduna unitatean sartzen denean, Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutuna eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren bidez onetsitako iradokizunen eta kexen araubidea emango zaizkio.

### **VI. KAPITULUA**

#### **ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

#### **20. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak**

OGEUren erabiltzaileek beren osasun eta gizarte baldintzetara eta Foru Dekretu honetan eta hirugarren adineko pertsonentzako egoitza arloko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan bildutako baldintzetara egokitutako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea izango dute, eta oro har Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutunean eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren bitartez onetsitako iradokizunen eta kexen araubidean ageri diren eskubideak ere izango dituzte.



**21. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak**

OGEUren erabiltzaileen betebeharrak Foru Dekretu honetan eta hirugarren adineko pertsonentzako egoitza arloko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan bildutakoak izango dira, eta oro har Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren gutunean eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren bitartez onetsitako iradokizunen eta kexen araubidean ageri direnak.

**22. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa**

1. OGEUn egindako egonaldiaren lehenengo hogeita hamar (3) egunetan ez dute prezio publikoa ordaindu beharko.

2. Egonaldiaren hogeita hamaikagarren (31) egunetik aurrera, GOFEk emandako zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen urtarrilaren 29ko diputatuen kontseiluaren 3/2013 Foru Dekretuan (ekainaren 4ko diputatuen kontseiluaren 19/2013 Foru Dekretuak aldatu zuen) edo momentu bakoitzean indarrean dagoen araudian aurreikusitako prezio publikoa aplikatuko zaie. Aipatutako araudia aplikatzeko, OGEUn emandako zerbitzuak 7.1 tarifa izango du, hori baita egoitza-zentroetan aldi baterako egonaldia egiteko ezarritako tarifa, OGEUk emandako zerbitzuei aplika dakizkiekeen prezio publikoak eguneratzen dituen abenduaren 31ko diputatuen kontseiluaren 50/2013 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraiki.

3. Aurreko bi paragrafoetan adierazitako denbora-tarteen kontaketa ez da etengo noizbehinkako ospitaleratzeen kasuan eta kasu horietan plaza erreserbatuko da, hurrengo artikuluan azaldu bezala.

4. 3/2013 Foru Dekretuaren III. eranskinean zerbitzuaren prezio osoa ordaindu ezin dutenentzat aurreikusten den hobari ekonomikoa interesdunaren, bere legezko ordezkariaren edo egitezko zaintzailearen eskaerari bakarrik aplikatuko zaio, aipatutako Foru Dekretuko 9. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

**23. artikulua. Plazaren erreserba**

OGEUn dauden pertsonen plaza erreserbatzeko eskubidea izango dute ospitaleratu izanaren ondorioz unitatean ez dauden denbora-tarteetan, betiere unitatek kanpo hogeita hamar (30) egun natural ez badaude. Denbora-tarte hori gaingitzen badute, zerbitzuan bajan emateko prozedura hasiko da.

## VII. KAPITULUA

## ZERBITZUAREN KUDEAKETA ETA GOFEK AITORTUTAKO BESTE ZERBITZU ETA PRESTAZIO BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

**24. artikulua. GOFEk aitortutako beste zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna**

1. GOFEn egindako egonaldia bateragarria izango da GOFEk aitortutako beste zerbitzu hauekin, jarraian bildutako baldintzetan:

a) Etxez etxeko laguntza zerbitzua: eten egingo da GOFEn sartzen den datatik aurrera eta gehienez 6 hilabete iraungo du etenaldi horrek. Denbora-tarte hori igarotakoan, zerbitzua ezeztatuko da.

b) Eguneko zentroa edo eguneko arreta eskaintzeko zerbitzua, lanerako zentroa barne hartuta: ohiko modalitatean, zerbitzua ez da etengo OGEUn sartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, eta denbora-tarte hori igarotakoan etengo da. Eteten den datatik 6 hilabete baino gehiago pasatzen direnean, zerbitzua guztiz ezeztatuko da.

Atsedena emateko modalitatean, interesduna unitatean sartzen denetik aurrera ezeztatuta geratuko da zerbitzua.

c) Gaueko zerbitzua edo zentroa: ohiko modalitatean, zerbitzua ez da etengo OGEUn sartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, eta denbora-tarte hori igarotakoan etengo da. Eteten den datatik 6 hilabete baino gehiago pasatzen direnean, zerbitzua guztiz ezeztatuko da.

Atsedena emateko modalitatean, interesduna unitatean sartzen denetik aurrera ezeztatuta geratuko da zerbitzua.

d) Gizarte zerbitzuen foru sarearen adineko pertsonentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) edo egoitza-zerbitzu edo zentroa, ezintasunen baten duten pertsonentzako eta buruko gaixotasunen bat dutenentzako laguntza eskaintzen duen etxebizitza, buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitzak, ezintasun intelektuala duten pertsonentzako egoitzak: ohiko modalitatean, zerbitzua ez da etengo OGEUn sartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, eta denbora-tarte hori igarotakoan etengo da. Eteten den datatik 6 hilabete baino gehiago pasatzen direnean, zerbitzua guztiz ezeztatuko da. Atsedena emateko modalitatean, interesduna unitatean sartzen denetik aurrera ezeztatuta geratuko da zerbitzua.

Aurreko paragrafoan adierazitako zerbitzuak etenda dauden denbora-tartean, beste pertsona batek okupatu ahalko ditu, atsedenerako modalitatean.

2. Pertsona batzuek OGEUn sartu aurretik jasotzen zituzten zerbitzuei dagokien prezio publikoa ordaintzeari dagokionez, ondorengoa aplikatuko da:

– a) letra: 3/2013 Foru Dekretuko 10.1.c artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

– b), c) eta d) letrak: OGEUko egonaldiaren lehenengo hogeita hamar egunetan eta plaza erreserbatuta dagoela, OGEUn sartu aurretik aitortutako zerbitzuen prezio publikoa ordaintzen jarraitu beharko da eta 31. egunetik aurrera ez da prezio publikoa kobratuko aipatutako zerbitzuengatik.

## **25. artikulua. GOFek aitortutako prestazio ekonomikoekiko bateragarritasuna**

GOFEn egindako egonaldia bateragarria izango da GOFek aitortutako prestazio ekonomiko hauek jasotzearekin, jarraian bildutako baldintzetan:

a) Familiaren baitan zaintzeko prestazio ekonomikoa: eten egingo da GOFEn sartzen den datatik aurrera eta gehienez 6 hilabete iraungo du etenaldi horrek. Denbora-tarte hori igarotakoan, ezeztatu egingo da.

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa: eten egingo da GOFEn sartzen den datatik aurrera eta gehienez 6 hilabete iraungo du etenaldi horrek. Denbora-tarte hori igarotakoan, ezeztatu egingo da.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu edo zentroak erabiltzekoa:

c.1- Eguneko zentroa, egunez arreta eskaintzeko zerbitzua, gaueko zerbitzua edo zentroa: Prestazioa OGEUn sartu eta hurrengo 30 egunetan mantenduko da, betiere prestazio ekonomikoa bere osotasunean eman zen helburua betetzeko erabili dela egiaztatzen bada, 39/2014 Foru Dekretuko 39.f artikulua ezarri bezala. Hogeita hamar egun horiek igarotakoan, prestazioa etengo da egonaldiak iraun bitartean, gehienez 6 hilabetez. Epe hori igarotakoan, guztiz ezeztatuko da. Atsedena emateko modalitatean, interesduna unitatean sartzen denetik aurrera ezeztatuta geratuko da zerbitzua.

c.2- Adineko pertsonentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) edo egoitza-zerbitzu edo zentroa, ezintasunen baten duten pertsonentzako eta buruko gaixotasunen bat dutenentzako laguntza eskaintzen duen etxebizitza, ezintasun intelektuala duten pertsonentzako egoitza eta buruko gaixotasunen bat duten pertsonentzako egoitza: prestazioa OGEUn sartu eta hurrengo 30 egunetan mantenduko da, betiere prestazio ekonomikoa bere osotasunean eman zen helburua betetzeko erabili dela egiaztatzen bada, 39/2014 Foru Dekretuko 39.f artikulua ezarri bezala. Hogeita hamar egun horiek igarotakoan, prestazioa etengo da egonaldiak iraun bitartean,

gehienez 6 hilabetez. Epe hori igarotakoan, guztiz ezeztatuko da prestazioa. Atsedena emateko modalitatean, interesduna unitatean sartzen denetik aurrera ezeztatuta geratuko da zerbitzua.

#### **26. artikulua. Mendekotasun egoera aitortzea eta berrikustea**

Lehenago ere mendekotasun egoera aitortu izan bada, mendekotasun egoera aitortzeko eta berrikusteko prozedura erabiltzaileen ohiko etxebizitzaren parekoa den OGEUn egin ahalko da, pertsona hori zentroan errolatuta ez badago ere. Hori guztia 36/2014 Foru Dekretuko 8.1 b artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Era berean, uztailearen 22ko 36/2014 Foru Dekretuko 7. artikuluan eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (horren bidez autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onartu da), egoera iraunkorrek soilik baloratu ahal izango dira, hain zuzen ere adinak, gaixotasunak edo ezintasunak eragindakoa eta autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala ez izatea edo galtzea eragiten dutenak.

OGEUn erabiltzaileei zentroan egon diren bitartean egin zaizkien balorazioak aldi baterakoak izango dira.

### VIII. KAPITULUA

#### ESKUBIDEA IRAUNGITZEA ETA OGEUn BAJAN EMATEA

#### **27. artikulua. Eskubidea iraungi izanaren eta bajaran eman izanaren arrazoiak**

Onuradunak OGEUn plaza bat okupatzeko duen eskubidea ondorengo arrazoiak direla-eta iraungi ahalko da eta ondorioz, bajaran emango da:

a) OGEUn sartzeko arrazoiak gaingitu izana edo ahal beste sendatu dela uste izatea. Hori egiaztatzeko, medikuaren txostena edo txosten soziala eta osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak emandako aldeko irizpena aurkeztu beharko dira aurretik.

Aurrekoa kaltetu gabe, osasun eta gizarte arloko Balorazio eta Orientazio Batzordeak, Foru Dekretu honetako 32 d) artikulua aplikatuz, erabiltzailearen bat bajaran emateko proposatu ahalko du eta horretarako txosten bat igorri beharko du.

b) Foru Dekretu honetako 23. artikuluan ageri den plaza erreserbatzeko eskubidea iraungi ahalko da OGEUtik kanpo 30 egun natural baino gehiago ematen baditu.

c) GOFEn aurrean idatzizko ukapena aurkeztea.

